

Klubak



IMANOL EPELDE PAGOLA

27zapata.eus

Astearte iluntzetan tortilla patata afaltzen da gure etxean. Hozkailuan zintzilikaturiko egutegian ez dator idatzita, baina denok dakigu: asteartetan tortilla. Bi arrazoiengatik. Bat: ez dauka egun horretan zer afalduko dugun pentsatzen ibili beharrik. Bi: erraz prestatzeko modukoa da. Eta hiru, barkatu, gehitu dezadan beste bat: ia denoi gustatzen zaigu. Ia. Guztien gustura egitea ez baita erraza: batek eginagoa nahi du besteak baino; tipula bai, baina, neurrian; piperrik ez, mesedez.

Supermerkatura joan naiz osagaiak erostera. Ate automatikoak zabaldu orduko, panelak eta pantailak hasi zaizkit deiadarka: supermerkatuko app-a deskargatuz gero, 10 euro oparituko dizkidate; klubeko bazkidea banaiz, BEZa oparituko didate elikagai freskoe-tan. Baina, klub bat al da ba hau? Noiztik oparitzen du zerbait supermerkatu batek? Zeri deitzen diote hauek *elikagai fresko*? Freskoa da gaur goizean hil duten oi-loa? Eta atzo goizekoa?

Megafoniatik etenik gabe jaurti didate mezua: 5 eurora arteko deskontua Cola Cao produktueta. Apaletan dauzkat 2x1 eskaintzak. Bigarren alea %20 merkeago eskaintzen didatela diotenak. Beste batzuk %30ean. %50ean. %70ean. Produktu asko 3x2ra, beste batzuk 4x3ra. Kontuan izan gabe, gainera, sustapen eksklusibo, aurrezki-kupoi pertsonalizatu eta eskaintza bereziak.

Gaur egun, irudipena dut urte guztian zehar egiten dizkigutela eskaintzak. Eta konbentzitu naute, zenbat eta gehiago gastatu, orduan eta gehiago aurrezten dudala. Hauxe da supermerkatuko appak etenik gabe esaten didana: aurrezteko, gastatu.

Iritsi naiz etxera. Nekatuta. Mareatuta. Erosketa gurdiaren gurpiletarainoko erosketa tiketa arrastaka. Ezin nezakeen erosketa hobea egin: 120 euro baino gehiago gastatu ditut. 8 euro itzuliko dizkit. Klubak. Diru kopuru eder bat aurreztu dut hurrengo erosketarako.

Zartagina atera dudanean konturatu naiz. Pentsatzen nuen ez nuela apuntatu beharrik izango. Akordatu nintzela. Arrautzak erosteaz. ●

